



2021/01/28KO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2021/01/28
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 19:20

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Maria Cristina Etxenausia Irure

Oihana Ameskoa Perez

Santiago Balantzategi Beitia

Ana Maria Martiarena Arregi

Gorka Astondoa Altuna

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

Pedro Elosegui González de Gamarra

Ez bertaratuak:

Iban Herrarte Arana

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzailea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.	3
2. UDAL ERAIKINEN GARBITASUNA EGITEN DUEN SAMSIC ENPRESAREKIN KONTRATUA LUZATZEA.	3
3. ONARTZEA UDAL ERAIKINEN GARBITASUNAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN HASIERA.	3
4. ZABOLAKO 6 POLIGONOKO 66, 68, 548 ETA 549 PARTZELEN ARTEKO BIDEAREN DESAFEKTAZIO ESPEDIENTEA.	4
5. ONARTZEA, BADAGOKIO, UDAL LANGILEEN SOLDATA IGOERA EGITEA.	6
6. GALDERAK ETA ESKAERAK.	6



1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.

Alkate-Lehendakariak 2020ko azaroaren 26ko ohiko bilkurako aktaren gainean inork oharririk ote duen galdetu du.

Inork akta horri buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak akta onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu da, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. UDAL ERAIKINEN GARBIKETA EGITEN DUEN SAMSIC ENPRESAREKIN KONTRATUA LUZATZEA

Alkateak gogorarazten du, 2017ko maiatzaren 25ean egindako Osoko Bilkurak onartu zuen, besteen artean, Aramaioko Udalaren esku dauden hainbat eraikinen garbiketa zerbitzua kontratatzeko espedientea onartzea. Horrekin batera, onartu ziren lehiaketa arautuko zituzten administrazio baldintza zehatzen orria, preskripzio teknikoaren orriak eta gastua egitea.

2017ko irailaren 2an egindako Osoko Bilkuran, berriz, SAMSIC IBERIA, S.L.U. enpresari esleitu zitzaion, esan bezala, Aramaioko Udalaren esku dauden hainbat eraikinen garbiketa zerbitzu kontratua. Horrenbestez, 2017ko abenduaren 12an sinatu zuten alderdiek, esleipena formalizatzen zuen kontratua.

Udalbatzak erabaki zuen, 2020ko otsailaren 27an egindako Osoko Bilkuran, esandako kontratuaren lehenengoko luzapena onartzea, 2019/12/12ko eraginkortasunarekin. Horrenbestez, luzapenaren bidez, amaiera epe berria 2020ko abenduaren 12a arte atzeratu zen.

Kontratua arautzen duten administrazio klausula berezien pleguan jasotzen da, kontratuaren iraupena bi urtekoa izango dela, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik hasita, eta berariaz luzatu ahal izango dela urtero, urte beteko epeaz. Haatik, iraupena gutzira ez da izango lau urte baino luzeagoa.

Kontuan hartuz aipatutako data hori igaro berri daukagula eta ez zela osoko bilkurarik egin aurreko abenduan, hainbat arrazoi direla medio.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Zerbitzu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

Lehena.- Luzatzea 2021eko abenduaren 12a arte SAMSIC IBERIA, S.L.U. enpresari egindako esleipena, Aramaioko Udalaren esku dauden hainbat eraikinen garbiketa zerbitzua aurrera eramateko.

Bigarrena.- Erabaki honi 2020ko abenduaren 12ko eraginkortasuna ematea.

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Zerbitzu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

3. ONARTZEA UDAL ERAIKINEN GARBITASUNAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN HASIERA.

Alkateak adierazten du, hainbat Udal Eraikinen garbiketa zerbitzuari dagokion kontratua amaitzeaz dagoela jada. Kontratuari dagozkion bi luzapenak eman direla eta datorren abenduaren 12an bukatuko dela kontratuaren indarraldia. Horren aurrean, premiazko zerbitzu horren esleipena berriz egin ahal izateko jardunbideari hasiera eman beharra dago.

Udalak esandako zerbitzuaren beharra duenez, ezinbestean kontratu berria egin behar du. Izan ere, udal eraikinak modu egokian edukitzeaz gain, bertan ematen diren zerbitzuen kalitatea bermatzea ezinbestekoa da eta, gainera, jokoan daude, besteen artean, herri osasun eta higiena.

Beraz, kontratuaren gaian aditua den enpresa bat kontratatu behar da, ondorengo Udal Eraikinak garbitzeko: udaletxea; mediku kontsultategia; Kultur Etxea (jubilatutako eta gazte-lekua barne); San Martin eskola; Haurreskola; Sastiña eraikina; eta hiltegi zaharraren eraikina.

Hori dela-eta, aipatutako Udal Eraikinen garbiketarako zerbitzu kontratua bideratzea proposatzen da.

Egitekoak diren lanen zailtasuna eta berezitasuna kontuan hartuta, aditzera ematen da, halaber, udalak ez duela bitarteko material eta pertsonal nahikorik ikerketa egin ahal izateko. Orobat, ez da handitzea komeni, izan ere, horrek, aurrekontuen egonkortasuna jokoan jar dezakeelako.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Zerbitzu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:



Lehena.- Hasiera ematea Aramaioko Udalaren esku dauden hainbat eraikinen garbiketa zerbitzua kontratatzeko espedienteari.

Bigarrena.- Udal zerbitzuei agintzea dagokion jardunbidea aurrera eramateko egin beharrei hasiera eman diezaietela.

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Zerbitzu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. ZABOLAKO 6 POLIGONOKO 66, 68, 548 ETA 549 PARTZELEN ARTEKO BIDEAREN DESAFEKTAZIO ESPEDIENTEA.

Alkateak aurkezten du Hirigintza Batzordeak aipatutako desafektazioaren gaiari buruz Udalbatzari egiten dion proposamena:

“Ikusirik, 2019ko urriaren 31ko osoko bilkuraren erabakia, Zabola auzoaren iparraldeko bide zaharra erabilera publikotik desafektatzeko espedienteari hasiera ematea erabaki zuena.

Ikusirik, udal arkitektoak 2019ko urriaren 22an idatzitako txosten tekniko eta Ekain Aholkularitzaren urte bereko urriaren 23ko txosten juridikoa, espedientearen hasiera justifikatu zutenak.

Ikusirik, desafektazio espedienteak ukitutako bideari dagokion lursailaren balorazio-txostena, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko Bide Azpiegituren Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek idatzia, 2020ko azaroaren 3koa.

Ikusirik, espediente jendaurrean jarri dela iragarki bat argitaratuz iragarki-oholean; beste bat 2020ko abenduaren 11ko Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (141. zk.); beste bat 2020ko urtarrilaren 9ko Berria Egunkarian; eta haren berri pertsonalki jakinarazi zaiela mugakide diren interesdun jabe mugakide guztiei. Halaber, hilabeteko epea eman zaie interesdunei egoki ikusten zituzten alegazioak egin eta aurkezteko.

Ikusirik, udaleko zerbitzu teknikoaren txostena, 2020ko azaroaren 23koa.

Ikusirik, jendaurreko informazio-epean bi alegazio-idazki aurkeztu direla:

- M^a. Carmen Abarrategui Beitia andreak alegatu du desafektazioa justifikatzen duen txosten tekniko ez datorrela bat errealitatearekin, uste baitu bidea beti erabili dela eta partzela-kontzentrazioan bide gisa geratu zela, eta beste bide batzuk egotea ez dela desafektatzeko arrazoia; horregatik, eskatu du udalak partzela-kontzentrazioko bidea berreskuratu dezala, partzela-kontzentrazio bide gisa erabiltzeko.
- Elena Errasti Garaitonandia eta Iñaki Gabilondo Agirrek 66 partzelaren jabeek alegatu dute desafektazio-espediente jasota dagoen balorazioan zuhaitz bat sartu dela, eta Beitikoa baserriaren lehengo jabeek landatu egin dutela; hori kontuan hartuta, eskatu du baloraziotik deskontatzeko zuhaitzari dagokion kopurua.

Kontuan hartuz, justifikatu egin dela Zabola auzoaren iparraldean dagoen bide zaharra desafektatzeko espediente hastea egokia eta legezkoa dela, uste baita ezin dela behar bezala erabili, bide zaharra landarediaren artean galduta dagoelako, ez delako ikusten bidearen arrastorik lursailaren gainean, ez delako erabili azken hamarkadetan erabilera publikorako eta, egiaztatu den bezala, mugakideak dituen lau partzelek sarbidea badutela, jabari eta erabilera publikoko beste bide batzuen bitartez, hain zuzen ere, erabilera horretarako ezaugarri egokiak dituzten bideak.

Hori guztia, M^a. Carmen Abarrategui Beitia andreak aurkeztutako alegazio-idazkiak kontraktorik frogatu gabe; izan ere, lurzatiaren kontzentrazioan lehengo bideari eutsi izanak ez du eragozten gaur egun bide hori ez erabiltzea, eta ez da beharrezkoa erabilera publikorako, eta jaregitea dagokio.

Kontuan hartuz, zela espedientearen hasieran oinarri gisa erabili zen txosten teknikoan desafektatu beharreko lursaila deskribatu zenean, bideak 286 m²ko azalera, 117 ml-ko luzera eta 1,20 eta 3 metro arteko zabalera irregularrekoa bezala egin zen. Aldiz, Arabako Foru Aldundiaren 2020ko azaroaren 3ko txostenean adierazten den bezala, katastroan zuzentzeko eskatu zen, bertako agiriak bidearen errealitateara egokitzeko. Zerbitzu horrek ondorioztatu duenez, desafektatu beharreko bideak 205,86 m²-ko azalera erreal du, eta udal-zerbitzu teknikoaren 2020ko azaroaren 23ko txostenak deskribatzen duen bezala, 117,5 ml-ko luzera du, eta 1,70 eta 1,80 m arteko zabalera irregularra. Beraz, aurretik esandako 205,86 m²ko azalera.



Kontuan hartuz, desafektatu beharreko 205,86 m²ko lursailaren azaleraren balioa, foru-txostenak adierazten duen bezala, 652,53 €koa dela, eta horren baitan dagoen hurrizaren balioa 146,78 €koa.

Eta ez dela kontuan hartzen harrizko hormaren zatiaren balioa; izan ere, foru-txostenean adierazten baita udalari dagokiola desafektatu behar den ala ez zehaztea. Izan ere, udal-zerbitzu teknikoaren 2020ko azaroaren 23ko txostenaren arabera, ez da beharrezkoa hormaren zati hori desafektatzea, udalak ez baitzuen parte hartu haren eraikuntzan. Hori guztia ondorioztatzen da udalaren esku dauden agiriak aztertu ondoren, hain zuzen ere, 6. poligonoko 66 partzelako etxebizitzaren eraikuntzari dagokion espedientearen jasotakoarekin bat, egindako eraikuntza lan horien barruan altxatu baitzen esandako harrizko pareta.

Hala ere, ezetsi egin behar da 66 partzelaren jabearen alegazioa, hurrizaren balorazioa ezabatzea, ez baita egiaztatu nahi bezala partikularrek landatu dutenik; horrenbestez, Kode Zibilaren 358. artikulutik eta hurrengoetatik ondorioztatzen denez, landaketak jabeak egin dituela uste da, kontrakoa frogatzen ez den bitartean, hargatik eragotzi gabe inoren lurretan landatu dena luraren jabeena izatea eskubidez.

Kontuan hartuz, ondorioz, Zabola auzoko bide zaharra soberako lurzatiat jo behar dela, haren hedadura txikia, forma irregularra eta kokapena kontuan hartuta, ezin baita behar bezala erabili.

Kontuan hartuz, lursaila soberako lursail izendatzeak, ondoren, alboko jabeari zuzeneko salmenta formalizatzea ekarriko duela, lurzorua antolatzeako irizpiderik zentzuzkoena kontuan hartuta,

Eta udal-zerbitzu teknikoaren txostenean adierazi zen bezala, lurzorua antolatzeako irizpiderik arrazoizkoena jarraituz gomendatzen da, 6. poligonoko 66 partzelaren titularrari besterentzea; batetik, 6. poligonoko 549 eta 548 partzelak kota desberdinetan baitaude; eta, bestetik, poligono bereko 68 partzelak bidearekin muga egiten duen arren, luzera txikiagoan egiten du. Hori guztiaz gain, 66. partzelaren jabea ez da lursaila desafektatu eta zuzenean saltzearen aurka agertu.

Bat etorrita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22., 47., 81. eta 81. artikuluetan eta Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretuaren 7., 8., 109. eta 115. artikuluetan xedatutakoarekin (BOE, 161. zk.).

Aramaioko Udaltzako, 2021eko urtarrilaren 28ko osoko bilkuran, korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin,

ERABAKI DU:

Lehena.- Administrazio-espedientea ebatzea eta Zabola auzoaren iparraldeko bide zaharra erabilera publikotik kentzea. Horren ezaugarriak dira: 117,5 ml-ko luzera; 1,70 eta 1,80 m arteko zabalera irregularra; guztira, 205,86 m²ko azalera. Ekialdean 6. poligonoko 66 partzelarekin muga egiten du, iparraldean 6. poligonoko 68 partzelarekin, hegoaldean 6. poligonoko 548 partzelarekin eta mendebaldean aipatutako 549 partzelarekin. Hori guztia, duela hamarkada batzuetatik bide publiko gisa erabiltzen ez delako, landarediaren artean galdua dago, eta ez da beharrezkoa, lurzati mugakideek jabari eta erabilera publikoko beste bide batzuetatik zuzeneko sarbidea dutelako eta, horiek, erabiltze eta mantentze baldintza ezin hobeetan daudelako.

Soberako partzela deklaratzeko, bere hedadura, forma eta kokapena direla eta, ezin delako behar bezala erabili; eta zuzenean besterentzea 6. poligonoko 66. partzelaren jabeai, Iñaki Gabilondo jaunari eta Elena Errasti Garaitonandia andreari soberako partzela izendatutako lursaila, erabilera egokirik ez duelako eta, baita ere, horren gainean altxatzen den zuhaitza, lurzorua antolatzeako irizpiderik zentzuzkoenari egokitzen zaiolako, hori guztia, 799,31€ko prezioan (652,53 € lurzoruak eta 146,78 € hurrizak).

Interesdunei jakinaraztea zuzeneko salmentaren bidezko besterentzea formalizatuko dela, behin erabaki hau administrazio-bidean irromoa denean eta ordaindu ondoren desafektatutako ondasunen balorazioak adierazitako kopurua. Halaber, jakinarazten da, eskritura publikoan formalizatzearen gastuak, besterentzearen ondoriozko zergak eta hura erregularizatzeko erregistro-gastuak eskuratzailari dagozkiola.

Bigarrena.- Erabaki hau iragarki-taulan argitaratzea, ALHAOn, eta pertsonalki jakinaraztea desafektatutako lursailaren mugakide diren jabe guztiei."

Juan Antonio Peña Orobengoa zinegotziak hitza hartu eta, jakinarazten du, EAJ udal taldea abstenitu egingo dela. Nahiz eta desafektazioaren hasierako onarpenaren alde egin zuten, alegazioetan ikusi dutenez, Arartekoak aurkako iritzia azaldu du desafektazio honen inguruan eta ez dute egoki ikusten aurkako iritzia hori edukita, desafektazioarekin aurrera jarraitzea.



Alkateak erantzuten dio, alegazio horretan azaltzen diren arrazoibideak guztiz nahastuak daudela. Gai eta kontu ezberdinekin interesdunak zentzurik ez duen alegazio bat osatu duela eta, horrekin, Arartekoan kexa aurkeztu duela eta, baita ere, udalaren asmoen aurrean alegazioa. Aratekoak udalari espediente eskatu zion eta, horrekin batera, beste hainbat txosten gaia ez baitzuen ulertzen. Hiru hilabete inguru dela, guztia azaltzen eta adierazten zuen txostena bidali zion udalak eta, ordutik, ez du udalaren irizpidearen aurkako ezer adierazi. Ondoren, hitzordua egiten dute udal bulegoan bertaratu eta espedienteak aztertzeko, alegazioaren korapiloa argitu eta udalaren irizpidearen bidez kotasunaren zalantzarik gera ez dadin.

Besterik gabe, alkate andreak bozketa deitu eta EAJ udal taldearen bi abstentzio eta EH Bildu udal taldearen aldeko 6 bozkekin, bestela esanda, Udalbatza osatzen duten zinegotzien gehiengo absolutuaren onarpenarekin, Hirigintza Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

5. ONARTZEA, BADAGOKIO, UDAL LANGILEEN SOLDATA IGOERA EGITEA.

Alkateak aurkezten du Hirigintza Batzordeak, EUDELeK egindako aholkua jarraituz, Udalbatzari egiten dion proposamena:

“Joan den 2020/12/31n, Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legea argitaratu zen BOEn.

Lege horrek, III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2021eko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du:

18. artikulua. Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuen arloan.

(...)Bi. 2021. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariekin ezin izango dute ehuneko 0,9ko igoera baino handiagoa izan 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokionez, alderaketaren bi aldietarako homogeneousotasuna mantenduz. Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2020koen aldean. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanagatik kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea helburu dutenak.

Korporazioak, 2021eko urtarrilaren 28an eginiko Osoko Bilkuran, **ADOSTEN DU:**

Lehena.- Udal langileen ordainsariak handitzea, 2021/01/01etik aurrerako ondorioekin, legez onartutako gehienekoa, hau da, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko %0,9 (konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokionez, homogeneousotasuna mantenduz).

Bigarrena.- Honakoaren berri ematea udal langileei.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Hirigintza Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Ez daude.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.